

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

23/2019 Foru Agindua, urtarrilaren 28koa, Arabako Hirigintzako Intereseko Elkartearen Erregistroan inskribatzeko Gasteizko udalerriko Jundiz mendebaldeko 21. sektorearen Kontserbazio Batzarraren zuzendaritza organorako izendapenen aldaketa

Lehenengoa. Gasteizko Udalak, Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorreko sarre-
ra-data 2019ko urtarrilaren 14koa duen idazki baten bidez, bidali du Jundiz mendebaldeko
21. sektorearen Kontserbazio Batzarraren zuzendaritza organoak haren Gobernu Batzarraren
berritzea onetsiz hartutako erabakiaren ziurtapena, Hirigintza Intereseko Elkartearen Erregistroan
inskrribatzeko.

Bigarrena. Jundiz mendebaldeko 21. sektorearen Kontserbazio Batzarra Hirigintza Intereseko
Elkartearen Erregistroan inskribatu zen, Toki Administrazioaren eta Lurralde Oreka Saileko foru
diputatuaren uztailaren 28ko 419/2009 Foru Aginduaren kariaz.

OINARRI JURIDIKOAK

Lehenengoa. Abuztuaren 25eko 3288/1987 Errege Dekretuak, zeinaren bidez hirigintza
kudeatzeko arautegia onetsi baitzen, bere 164. artikuluan xedatzen du ezen, konpentsazio
batzarretan gertatzen diren gorabeherak, hala nola zuzendaritza organorako izendapenen al-
daketak, jakinaraziko zaizkiola hirigintza entitate laguntzaileen erregistroari, diharduen admi-
nistrazioaren bitartez. Agindu hori aplikagarria zaio espediente honen gaia den kontserbazio
batzarrari, esandako arautegiaren 24.3 artikuluan xedatutakoarengatik.

Kasu honetan, 2019ko urtarrilaren 9an Jundiz mendebaldeko 21. sektorearen Kontserbazio
Batzarraren lehendakariak Gasteizko Udalean aurkeztu du gobernu batzarreko kide jabeak
berritzeko erabakia, aparteko batzar orokorrean aho batez onartua 2018ko urriaren 10ean egin-
dako bilkuran, eta eskatu du hura Hirigintza Intereseko Elkartearen Erregistroa bidal dadila.

Bigarrena. Aplikatzeko da Diputatuen Kontseiluaren irailaren 20ko 56/2011 Foru Dekretua, Ara-
bako Lurralde Historikoko Hirigintza Intereseko Elkartearen Erregistroa sortzen eta arautzen duena.

Hirugarrena. Lurralde Antolamenduaren eta Hirigintzaren Zerbitzuak txosten arrazoitua egin
du eta jakinarazitako aldaketa erregistroan inskribatzea proposatu du.

Horregatik guztiagatik, dagozkidan eskumenak baliatuta,

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Agindua ematea Arabako Hirigintza Intereseko Elkartearen Erregistroan
inskrribatzeko Jundiz mendebaldeko 21. sektorearen Konpentsazio Batzarraren zuzendaritza
organoan izandako aldaketa, Gobernu Batzarraren berritzean eta hemendik aurrera hartako
lehendakari, lehendakariorde, idazkari, diruzain eta batzarkide karguetan jardungo duten
pertsonek izendapenetan datzana.

Bigarrena. Ebazpen hau ALHAOn argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko urtarrilaren 28a

Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua

JOSEAN GALERA CARRILLO